

44. INFORMAZIO FITXA MUNARRIKOLANDAKO TRIKUHARRIAK

KOKALEKUA

Udalerria

Sopelana

Berango

Udalerraren kod.

086

016

Eskualdea

Plentzia-Mungia

Bilboaldea

Kartografia

Bizkaiko Foru Aldundia (1:5.000)

Orriak

03753

03754

03762

FITXA TEKNIKOA

Homologatua

Ez

Gutxi gorabeherako denbora

Ordu 1 eta 30 minutu

Gehieneko desnibela (m)

220

Luzera (km)

5

Zailtasuna

Ertaina-Erraza

Trazatu mota

Lineala

Ibilbidearen hasiera

Sopelanako Urko polikiroldegia


Ibilbidearen amaiera

Pozozabale (Erandio)

Interesa

Etnografia, paisaia, natura

Ibilbidearen profila



Sustatzailea:

Lurralde Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundeak


Kontsultorea:

NK gestión ambiental y cultural S.L.

Urtea:

2005

Mapa/Krokisa



Nola Iritsi

Sopelanara Bilbotik joan daiteke, Getxorako autobia hartu eta, gero, BI-634 errepidetik jarraituta. Ibilbide horren sarbidea Sopelanako Urko polikiroldegian jarri dugu, baina beste sarbide bat ere badago Berangoko trikuharrietara joateko (hilerriaren ondoan).

Deskribapena

Urkoko kirol instalazioen ondoko askaldegitik irtengo gara, eta, Mendibeko estratatik, Munarrikolandako mendilerroarekin bat egingo dugu, Infernuetaren parean. Bertara heldu ondoren, bidezidorrik agerikoenari jarraituko diogu; hori mendilerroren goialdetik doa eta hilobi-monumentuetatik, lubakietatik nahiz bunkerretatik eramango gaitu. Mendilerro osoa ibili ondoren, ibilbidea Pozozabalen amaitzen da.

IBILBIDEAREN EZAUGARRIAK

Trazatua

Ibilbidea zementuzko baso-bidetik doa hasieran, eta lurrezko bidezidorretik mendilerroan.

Gurpil-aulkietarako gauza

Ez

Norabideko seinaleztapena

GR Uribe bidearen balizak eta pintura markak daude. Gainera, ibilbidearen noranzkoa adierazten duten balizak ere badaude.

Informazioko seinaleztapena

Trikuharrien ibilbideari buruzko informazio panelak daude Urkoren atsedenekuan, Berangoko hilerrian, bidezidorraren hasieran, eta Pozozabalen. Hilobi-monumentuak Eusko Jaurlaritzaren zedarriz ofizialekin seinaleztaturik daude. Infernuetako lursailean, Berangoko Udalak zuhaitz espezie desberdinak landatu ditu; bertan, lursailaren plano duen informazio panel bat eta plakadun zutoinak daude, eta horiek espezie bakoitzari buruzko informazioa ematen dute.

ARGAZKIAK

Ibilbideari buruzko informazio panela bidearen hasieran, Berangoko hilerriaren ondean.



Informazio panela Infernuetako lursailean.



Sustatzailea:

Lurralde Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundea

Kontsultorea:

NK gestión ambiental y cultural S.L.

Urtea:

2005

GR Uriberen baliza Infernuetaren ondean.



Eusko Jaurlaritzaren zedarra ofiziala Saiherri tumuluaren ondoan.



Ibilbidearen noranzkoa adierazten duen baliza.



BALIABIDEAK

Berangoko hilerria

1949an eraiki zuten; aipagarria da aurrealde tetrastilo doriko handia; neoklasikoa da eta aurrean eskailera zabala dauka; aurrealdea enbor itxurako zutabe konikoetan euskarrituta dago, eta arkitrabearekin eta frontoi triangeluar oso eroriarekin errematatu da; goian gurutzea dauka. Aurrealdean, gainera, alboko bi gorputz daude; bata kaperatzat erabiltzen da eta horren aurrean gurutzea nahiz bi aingeru daude; besteak Jasokundearen goi-erliebea eta horma-hobia ditu, eta inskripzioa ere badauka. Frontoian ere inskripzioa dago.



Infernueta

Infernueta mendiari Aranburu ere esaten diote; mendebaldean dago, Munarrikolandako mendilerroaren ondoan. Bertan, Berangoko Udalaren lursailtxo batean, zuhaitz espezie desberdinak landatu dira eta bakoitzaren loratzeari, fruituei nahiz erabilerei buruzko informazioa dago. Aukeraturiko espezieak haritza, urkia, hurritza, lizarra, astigarra, haltza, artea, ereintza, gorostia eta ihia dira. Lursailean eukalipto batzuk ere kontserbatu dira, itxura ederrekoak baitira; izan ere, espezie horrek presentzia dauka mendilerro osoan (eukalipto landaketa handiak).



Ikuspegi panoramikoak

Sopelana, Berango eta Urduliz udalerriak banatzen dituen Munarrikolandako mendilerrotik, ikuspegi panoramiko itzelak daude: Jata mendia, Gornizeko kostaldeko mendiak nahiz itsasargia, Urduliz, Sopelana, Berango, Getxo eta itsasadarraren ezkerreko mendi asko (Luzero lurmuturra zein Serantes, Trianoko mendiak, etab.).



Munarrikolandako multzo megalitikoak

Berangoren eta Sopelanaren arteko mugan kokaturiko Munarrikolanda mendilerroan sei multzo megalitiko daude, hareharrizko eta lurreko trikuharrien eta tumulu biribilen artean. Neolitoko hilobi-monumentuak dira.



Burdinazko Gerrikoaren aztarnak

Bilbo Gerra Zibilean defendatzeko, gotorlekuak eraiki ziren Plentziatik Galdakaora, eta Galdakaotik Zierbenara; horrela, hiriburua, industrialdea eta portua babestuta gelditu ziren; eraikuntza multzo horri Burdinazko Gerrikoa izena jarri zioten. Unbetik itsasorako zona gerrikoaren Ekialdeko Sektorea zen; horren barruan, bi lubaki lerro eta hormigoizko eraikuntza batzuk zeuden. Eraikuntza militar horietariko batzuen aztarnak daude, Munarrikolanda mendilerroan (bunkerrak, lubakiak, etab.).

EKIPAMENDUAK

Atsedenekua

Urkon dagoen polikiroldegiaren ondoan atsedenekua daukagu; mahaiak, aulkiak eta erretegiak ditu, eta makaldi batean kokatuta dago.



Haurren jolasak

Haurren jolasetarako zona dago Urkoko polikiroldegiaren ondoan, atsedenekutik oso hurbil.



Aparkalekua

Urkoko polikiroldegiak aparkaleku handia dauka. Berangoko hilerriaren ondoan ere aparkalekua dago.



ZERBITZUAK

Ostatuak

Sopelanan, hotel pare bat ez ezik, kanpina ere badago Atxibiribil etorbidean (z/g), hondartzaren ondoan. Berango udalerrian ez dago ostaturik.

Tabernak eta jatetxeak

Sopelanan eta Berangon taberna, jatetxe eta garagardotegi asko daude.

Sopelanako turismo bulegoa

Sabino Arana kaleko 1. zenbakian, Udaletxeko atondoan.

Garraio publikoa

Udalerrri horietara joateko garraio biderik onena metroa da. 1. lineak geraleku bat dauka Berangon eta bi Sopelanan, eta ibilbidetik hurbilen Larrabasterrakoa dago.

OHARRAK

Ibilbideko datuak Urkoko polikiroldegitik Pozozabalerako (joana) ibilbide linealean oinarritzen dira, baina polikiroldegirako itzulia ere aintzat hartu behar da (joan-etorria), eta beraz, ibilbideak hiru ordu inguruko iraupena dauka.